



## **2/2005 FORU ARAUA, martxoaren 8koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra**

### **27. artikulua. Errekarguak aurretiazko errekerimendurik gabeko aitortpena epez kanpo aurkezteagatik.**

1. Artikulu honen ondorioetarako, aurretiazko errekerimendutzat hartuko da zerga zorra ezagutzeko, erregularizatzeko, egiazatzeko, ikuskatzeko, ziurtatzeko edo likidatzeko, eta zergapekoa formalki jakinaren gainean jarrita, egiten den edozein jarduketa administratibo. Zehazki, aurretiazko errekerimendutzat hartuko da, orobat, zergapekoari edo ordezkariari foru arau honen 108.1 artikuluan aurreikusitako moduetako bat erabilita deia egitea agerpen bidez jakinarazia izateko, behin bakarrik interesdun bakoitzeko, eta dei hori argitaratzea.

2. Epez kanpoko aitortpenak errekargu hau izango du:

a) 100eko 2, baldin eta autolikidazioa edo aitortpena aurkezten bada aurkezpena eta diru-sarrera egiteko borondatezko epea amaitu eta hurrengo hiru hilabeteen barruan.

b) 100eko 5, baldin eta autolikidazioa edo aitortpena aurkezten bada aurkezpena eta diru-sarrera egiteko borondatezko epea amaitu ondorengo laugarren eta hamabigarren hilabete bitartean.

c) 100eko 10, baldin eta autolikidazioa edo aitortpena aurkezten bada aurkezpena eta diru-sarrera egiteko borondatezko epea amaitu eta hamabi hilabete igaro ondoren.

Errekargu hori kalkulatzeko, aintzat hartuko da autolikidazioen ondorioz ordaindu beharreko zenbatekoa edo epez kanpoko aitortpenetatik eratorritako likidaziotik datorrena. Zehapenak, egonez gero, alde batera utziko dira, baina ez berandutze interesak.

Berandutze interesak kalkulatu dira autolikidazioa edo aitortpena aurkeztu eta diru-sarrera egiteko borondatezko epea amaitzen denetik hura aurkeztu arte.

Epez kanpo baina aurretiazko errekerimendurik gabe aurkeztutako aitortpenetatik datozen likidazioen kasuan, berandutze interesik ez da exijituko aitortpena aurkezten denetik likidazioa ordaintzeko borondatezko epea amaitu arte igarotako denboragatik, baina horrek ez du galaraziko aitortpena epez kanpo aurkezteagatik zilegi izan litezkeen errekargu edo interesak exijitzea.

3. Zergapekoek ez badute ordainketarik egiten ez gerorapen, zatikapen edo konpentsaziorik eskatzen epez kanpoko autolikidazioa aurkeztean, aurreko apartatuan xedatutakoaren arabera aurkezpenak epez kanpo egiteak ekartzen dituen errekargu eta interesen likidazio administratiboa ez da oztopo izango epealdi exekutiboari dagozkion errekargu eta interesak autolikidazioaren zenbatekoaren gainean exijitzeko.

4. artikulu honetan xedatutakoa aplikatu ahal izan dadin, epez kanpoko autolikidazioek espresuki identifikatu behar dute zein zergaldi den likidatzen dena, eta bakar-bakarrik zergaldi horri buruzko datuak jasoko dituzte.